

**ZIENTZIA, BERRIKUNTZA ETA UNIBERTSITATE
MINISTERIOAREN "JAKINTZA SORTZEKO PROIEKTUAK"
2024ko DEIALDIARI LOTUTAKO EHUⁿ DOKTOREAK
PRESTATZEKO DOKTORATU AURREKO KONTRATAZIO
DEIALDI APARTEKOA (FPI 2025)**

**Ebaluatzeko onartutako eta baztertutako behin-behineko
zerrenda**

Eskaerak aurkezteko epea amaitu ondoren, Ikerketa Errektoretzako Ikerketa Kudeatzeko Zuzendaritzak aurkeztutako eskaerak berrikusi ditu, hautagai bakoitzak deialdian eskatutako dokumentazio guztia aurkeztu duela egiaztatzeko, honako alderdi hauek azpimarratuz:

- a) Eskatzaileek 4. eta 7. oinarrietan jasotako baldintzak betetzea.
- b) Deialdiaren I. eranskineko proiektu bakoitzean jasotako baldintzak betetzea.

Egiaztapen horren ondorioz,

ERABAKI DA onartutako eta baztertutako hautagaien behin-behineko zerrenda Ikerketa Errektoreordetzaren webgunean argitaratzea.

Adierazitako akatsak zuzentzeko edo nahi dituzten alegazioak aurkezteko, 10 egun balioduneko epea izango da, argitaratu eta hurrengo egunetik hasita **(2026ko martxoaren 4ra arte, egun hori barne)**. Epe hori igaro ondoren, zuzendu gabeko eskaerak atzera egindakotzat joko dira.

Proiektu bakoitzean baloratu beharreko merezimenduak, I. ERANSKINEAN zehaztutakoak, dagozkien ebaluaziio batzordeetara bidaliko dira.

Dokumentazioa aurkeztea

Deialdiaren 7.1. oinarrian eskabideak aurkezteko ezarritako bide berberak erabiliz aurkeztu beharko dira agiriak.

Leioan, 2026ko otsailaren 18an.

IKERKETARAKO GIZA BALIABIDEEN ATALA

Ikerketa Errektoreordetza